

Markinan, Udaletzeko batzar-aretoan, 1983.eko irailaren 25ean bertako Euskal Jaien mendeurrena ospatuz egin du Euskaltzaindiak bere batzar irekia. Mahai buruan L. Villasante jaunarekin eseri dira, J. M. Velez Mendizabal Kultur Kontseilari-ordea, J. M. Makua Bizkaiko Diputadu nagusia, Lauren Aretxabaleta Markinako alkatea eta Patxi Zurikaray, Bizkaiko Diputazioko kultur-arduraduna, J. M. Satrustegi idazkari dela. Euskaltzainditik etorri dira: P. Altuna, J. L. Davant, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte eta J. San Martin euskaltzainak. J. A. Arana, R. Badiola, J. G. Etxebarria, J. M. Etxebarria, J. M. Lekuona, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, P. Uribarren, I. de Urquijo eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Ezin etorria adierazi dute: X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre eta P. Larzabal jaunek. F. Ondarra aurreko egunetan egona zen.

J. Goikoetxea Maiza eta A. Zugasti euskaltzain urgazleen hil-berria eman du euskaltzainburuak. Lehenengoaren bizia eta lanak aipatu ditu P. Altunak. Beste batean egingo da bigarrenaren txostena.

Goizeko batzarraren berri

Goizeko hamaiketan bildu dira euskaltzainak eskuarteko gaiak ikusteko. Hauen artean, Markinako Udalak antolatatu dituen sariketarako epaimahikoak birretsi dira. Era berean, Txomin Agirre eta Mikel Zarate, nobela eta saiakera sarien epaileak aukeratu dira.

Bizkaia hitzaren erabilkerari buruz Diputazioak egindako eskaria ikusi da, eta dagokion batzordeak erantzuna ematea erabaki da. Urduñako eskoletan batua ala bizkaiera erakutsiko den galdetuz hango udaletxeak egindako galderari bere egunean erantzuna eman zitzaiola, jakinerazi zaie batzartuei.

Solana Kultur ministrariak deiturik, Madrilen izan dira, L. Villasante, J. San Martin eta E. Knörr, euskaltzainak. Euskal Akademiaren lan eta finantzia-bideen berri jakin nahi zuen Solana jaunak, ekintzaren baten kostua bere gain hartzeko prest zegoela esanez. Premiazkoen berri emango zaio.

L. Mitxelena Iker Sailburua, Barzelonako Unibersitate Autonomoak "Doktor Honoris Causa" izendatu duelako berria, pozez beterik jakin du Euskaltzaindiak. Zorionak bemazkio, eta Euskaltzaindiaren batzorde bat joango da ospakizunera, datorren urriaren 3an.

Dialektologi batzordearen berri

Aste buru honetan Markinan egindako Dialektologiako Barne-jardunen berri eman du J. M. Etxebarria, batzorde idazkariak. Orain arte egindako lana ikusi da eta traskribapenaren erdua zehaztu. Euskararen atlasa egiten joatea da helburu nagusia eta, horretarako azpi-egitura sortu da. Itaunlariak ordezkarria izango dute koordinatzaile, batzorde tekniko baten babesean. Batzorde aholkulariak zainduko ditu ikuspuntu nagusiak. Galdekizunen zerrenda lehen-bait-lehen egitea eskatu zaio batzorde teknikoari. Beste lanbide batzutatik aske daudekeen lankideak behar direla, esan da.

Txostenak

Lauren Aretxabaleta, herriko alkateak, eman dio hasiera batzarrari, batzartuei ongi-etorria emanez. Esker oneko hitzak izan ditu Euskaltzaindiarentzat, Markinan bildu delako. Ea denon artean euskara aurrera ateratzen dugun opatuz, amaitu du bere hitzaldi laburra.

Euskal Jaien sortzale izandako A. Abbadie euskaltzalearen berri eman du bere txostencan, J. L. Davant, Xuberoko euskaltzainak. Ospakizun hauen historia aipatu du eta herri konzientzia sortzeko izan zuten eragina. Mendeurren honetan ere horrelako zerbaiten beharrean aurkitzen dela gure hizkuntza, esan du txostengileak.

Pedro Juan Cruz de Renteria, euskal idazlea, eta bere *Cristiñauak biarreko daben doctriñea*, aztertu ditu X. Altzibar, Getxoko Institutoan euskal hizkuntza eta literaturaren irakasleak. Ez hain zaharra izanik idazle hau, euskaldunen zabarkeriaz baztertua izan dela, adierazi du. Lan luzea txostengilearena. Irakurtzean laburtu badu ere, osorik argitaratuko da bere egunean.

C. Gonzalez Echegaray jaunak ez du etortzerik izan, ebakuntzaren bat egin berri bait diote. J. A. Aranak irakurri du *Bonaparteren esku izkribuen katalogoa* izeneko txostena. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen artxiboetan dauden bildumak dira ezagunenak, eta ia ez da aipatzen Euskaltzaindiko bibliotekan dagoena, haietako edozein baino ugariagoa. Katalogo honen bidez iturri guzien berri izango dute ikerleek.

Markina bizkaiera literarioaren seaska izenburua duen txostena irakurri du euskaltzainburuak. Mogelek Markinan iragan zuen bizi gehiena, eta zabalkundeari begira gipuzkeraz idatzi bazuen ere bere lehen liburua, inguruko apaizek gogor eraso zioten bertako euskalkia baztertzeagatik, eta bizkaierari lotu zitzaion geroztik. Euskalkien tradizio literarioa ez da beti kontuan hartzen, eta tokikerietara itzultzen dira zenbait idazle aurrez ezer egin izan ez balitz bezala, eta denentzat kaltegarri da; baina, batez ere euskalkiarentzat. Bizkaierak badu bere tradizio literarioa.

J. M. Velez Mendizabal, urgazle eta Kultur Kontseilari-ordeak bere ohore eta erantzunkizun handia aipatu ditu. Beharrezkoak dira euskal besta hauek euskal konzientzia esnatzeko eta karguan den bitartean ahaleginduko dela laguntzen, esan du. Gaur badugu erakundea eta itzaropentsu ikusten du etorkizuna. Sekula baino garrantzitsuago dira, bere ustez, Euskaltzaindia eta horrelako lana egiten duten elkar-teak, Udalak eta abar.

J. M. Makua Bizkaiko Diputadu nagusiak hartu du gero hitza, bilbotarra dela eta euskara ikasi zuela adierazteko, aurreko aipamen bati erantzunez. Diputazioaren aldetik ahalegintzen dira euskararen alde ahal dena egiten, eta Euskaltzaindiaren ikurrean diren hitzak aipatu ditu azkenean: *Ekin eta jarrai*.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M.^a Satrustegi
Idazkaria